

# EZTEI-BIDAIA BAT SRI LANKARA, EDO ERREGAI FOSILIK GABEKO ETORKIZUNERA

Erregai fosilen agortzeak ekarriko duen mundu arraro eta ezezaguna nolakoa izango den zail da asmatzea. Baina gaur egun jadanik ikus ditzakegu zantzu batzuk Hegoalde Globala deituriko herrialdeetan, beti bezala orain ere pobreenek pasako baitute okerren. Joan den urtetik hondamendi egoeran dagoen Sri Lanka bihurtu da energia krisiaren ispilua.

 URKO APAOLAZA AVILA

**O**ndoko kaleko bidaia agentzian pakete turistikoa erosi eta Asia hegoaldeko herrialde exotikoren batera joatea, bizitzan behin egin beharreko zerbait bihurtu da klase ertaineko europar askorentzat. Ez baldin bada ikasketak bukatzerakoan, ezkonbidaian joan zaitezke bikotearekin, eta bestela berrogeiak betetzerakoan koadrilarekin. Iberia edo Qatar Airwayseko hegazkinek eramango zaituzte, diesela upelka dariela ipurdiko zulotik. Baina diesela da juxtu gero eta gehiago falta daiguna, eta hori ondo dakite azken urteetan turistak jasotzera ohituta zeuden Sri Lankan.

Duela urtebete inguru, 2022ko maiatzean Donostia ingurukoa omen den bikote ezkonberri bat herrialde hartara ezteibidaian iritsi zenean, gertatzen ari zena ezin sinetsita haietako batek Twitterren kontatu zuen ikusitakoa. Ez da iturri oso konbentzionala, eta irakurlea fidatu daiteke ala ez gure kontalari anonimoak hitzez hitz dioenaz. Baina ileak zutik jartzeko modukoa bada hark Sri Lankan aurkitutako errealtate distopikoa: “47 jarraitzaile ziztrin besterik ez ditut (asko maite zaituztet), eta badakit ez dudala oihartzun askorik izango, baina Sri Lankak bizi duen egoeraz hari hau konpartitu nahi dut zuekin, herrialde horretan nagoelako orain-txe bertan oportetan”. Uste zuenaren kontrara, bere mezuak berehala zabaldu ziren sare sozialetan.

Turista harrituaren txioa aipatu zueneko bat Antonio Turiel fisikari eta iker-

tzailea izan zen. Hain justu, berak jarri gintuen Sri Lankaren lorratzaren atzetik, duela bi aste ARGIA n egin genion elkar-rrizketan. Turielen esanetan energiarekin “atzeraldi handia” datorkigu, eta datozen hamarkadetan %80 gutxitu beharko dugu kontsumoa: “Hau jadanik gertatzen ari da, banaketa ez delako homogenea; Sri Lankan adibidez askoz gehiago ari dira nabaritzen”, dio fisikariak. Hemen ere, beste gauza gehienetan bezala, desberdintasunak baitaude herrialde pobre eta aberatsen artean.

1948. urtera arte Britainiar Inperioaren kolonia izandakoa, Tamil herriak azken hamarkadatan eramandako borrokatatik egingo zaio ezagun irakurle euskaldunari Indiako azpikontinentearen muturrean dagoen irla hori. Berrikiago, Sri Lankak 2022ko uztailaren 9an egin zuen jauzi munduko hedabide nagusietara, milaka herritarrek Colombo hiriburuan presidentearen egoitza asaltatu zutenean. Hiru egun geroago, Gotabaya Rajapaksa presidenteak ihes egin zuen Maldivatarako abioia hartuta. Rajapaksa familiak Sri Lankan “erregimen oligarkikoa” zuen ezarria aspalditik. Lurraren Adiskideen Sareko Hemantha Withanage ingurumen aktibista srilankarrak erakunde horretako webgunean botatzen dizkien loreak ez dira nolanhikoak: nepotismoa, ustelkeria, botere gehiegikeria, diru publikoaren lapurreta... Horiek dira rajapaksarrek bere herriari opari utzitako legatua.

Herrialdeak hilabeteak zeramatzan

egoera jasanezinean. Pandemia aurretik zetorren zorpetze itogarriaren ondorioz, inportaturiko erregaiaren prezioa izugarri garestitu zen, are gehiago Ukrainako gerra piztu zenean, eta agintariekin milaka milioi rupia –hango moneta– inprimatzeko harturiko erabakiak inflazioa leherrarazi zuen. “Sri Lankako esperientziak irakaskai garrantzitsua dakar: politika neolibera-ralek edozein herrialde krisira eraman dezaketela”, dio Withanagek bere artikuluan. Gobernuak papurrak eskatu behar izan dizkio Nazioarteko Moneta Funtzari –3.000 milioi dolar– estatuarena den Ceylon Petroleum Corporation (CPC) konpainia salbatzeko, eta gaur egun BlackRock bezalako inbertsio funtsei dago salduta ia irla osoa. Askoren ustez Sri Lanka da erregai fosilen amaierak dakarkigun krisi energetikoaren lehen biktima eta etorkizuneko ispilua.

## HIRU FAMILIA, HOZKAILU BAKARRA

Baina itzul gaitezen 2022ko maiatzeko ametsetako ezkonbidaiara: “Hemen duzue bideo bat jendea ilarak egiten agertzen dena... ilarak zertarako? Erregai depositua betetzeko. Momentu honetan pertsonako 15 litroko muga dute gasolindegian”. Errazionamendu hori ezarri zuen Rajapaksak gasolinaren eskasia hasi zenean. Baina erregai faltak dena jarri zuen hantza gora, ez soilik mugikortasuna: “Herrialdeko zentralen gehiengoak erregai fosilekin funtzionatzen du, eta hori erosteko dirurik ez dutenez, jendea hamabi orduko



ARTE TV

**NAZIMA**

Hala izena du Arte telebista katean eskaini duten dokumentaleko protagonistetako batek. Sri Lankako Colombo hiriburuan bizi da seme-alabekin eta senarrarekin, eta euren soldatekin apenas eros dezakete barazkirik. Azken bi urteetan, energia krisiak janari eskasia eta inflazio izugarria eragin ditu herrialdean. Irudian, dendaria Nazimak emandako rupia sorta kontatzen, zereal poltsakada txiki baten truke.

argi mozketak jasaten ari da”, zioen gure txioliariak. Bere mezuak irakurtzen jarraitzea, ikusi nahi ez dugun etorkizun ilun horretan barneratzea bezalakoa da: “Gaur gobernuak erregaiaren prezioa eguneratu du eta 400 rupia balio du orain, atzo baino %30 gehiago”, “Bi militar jarri dituzte gasolindegia guztietan”, “Guk fruta batzuk ordaindu ditzakegu euroak ditugulako, autoktonoei ez zaie burutik ere pasatzen”...

Urtebete geroago munduari ahaztu zaio Sri Lanka nola dagoen, baina kolonizatzaile sarraskijaleei ez. Pasa den astean gobernuak hitzarmena sinatu du Txinako Sinopec petrolio konpainia erraldoiarekin; horren arabera CPC konpainia publikoak dituen estatuaren jabetzako surtidore ugari haren eskuetara pasako dira hogeitaz urtez, erregaiaren finantzazioaren truke. Ez da hori harturiko erabaki ba-

karra. Energia Atomikoaren Batzordeak onespena eman dio lehen zentral nuklearra eraikitzeari, “Errusiaren laguntza teknikoarekin”, Sri Lankako Parlamentuaren webgunean irakur daitekeenez. Albiste berean esaten da Saudi Arabia interesaturik dagoela Sri Lankako koko-zuntzarekin, desertuan landatu nahi dituen 10.000 milioi arbolen ongarritarako... “Dibisa kopuru handia lor dezakegu”, esan zuten Parlamentuko diputatu batek. Emeterio Arresek idatzi zuen moduan, ez ote dira alferrik ari Iparragirrek utzitako zaku diruaren bila?

Energia krisia zauri sakonago baten beste katebegi bat da, kapitalismoak arazoak elkar lotzen baititu sarritan. Hori gertatu da Sri Lankan. 2021ean Gobernuak neurri harrigarria iragarri zuen: ongarri kimikoak debekatu zituen. Dirua aurrezte-

ko noski. Baina aurretik kimikoz dopatuta zeuden lurrek nekez eman zuten uztarik bapatean ekologikoan landuta, eta gosea zabaldu da herrialde osoan. Orain atzera egin dute, baina ongarriak izugarri garestitu dira energia krisiaren ondorioz.

Arte telebista kateak *Sri Lanka: les afamés de la crise* (“Sri Lanka: krisiaren gogorak”) dokumentala eskaini zuen otsailan –gaztelaniaz ere azpidatzita–, Arnaud Guiguitant kazetariaren esutik. Nazima da protagonistetako bat, Colomboko Maradana auzoko ama: “Bizitza gogorra da Sri Lankan. Kezkatuta nago nire seme-alabengatik, badirudi dena okerrera doala eta ez dakit erresistituko dugun”. Berak eta bere seme-alabek beste bi familiekin konpartitu behar izan dute etxea eta hozkailua. Agian etorkizuna gaur da, hiru zatitan banatua. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)

